





## Muskizko Udala Ayuntamiento de Muskiz

e) Halako diru-laguntzen edo laguntzen eremuan hasitako itzulketa edo zehazpen prozesuetan ez egotea.

f) Eskubide publikoko zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak eguneraturik izatea.

2. Erakundeen partzuergo batek aurkeztutako proiektuek ere diru-laguntzak lortu ahal izango dituzte. Kasu horretan, partzuergoan dagoen erakunde bakoitzak artikulu honetako lehenengo idatz-zatian adierazitako baldintzak bete beharko ditu.

Partzuergoko erakundeek proiektuaren erantzukizun bateratua bereganatzen dute; gainera, egoitza bakarria aukeratuko dute, espedientearen jakinarazpen administratiboetarako.

Erakunde bakoitzak proiektuan duen parte hartzearen portzentajea, baita bakoitzaren eskubidek eta betebeharrak ere, kasuan kasuko eskabidea aurkeztean egin beharko duten hitzarmenean zehaztuko dira. Hitzarmen horretan erakunde bakoitzak bere parte-hartze portzentajearen erantzukizun zuzena eta proiektu osoaren erantzukizun subsidiarioa bereganatzen dituela adierazi beharko da.

### 4. KANPORAKETAK.

Ondorengo hauek diru-laguntza deialdi honetatik kanpo geratuko dira:

- a) Jasotako diru-laguntzaren agiria aurkezten ez dutenak.
- b) Ez dira diru-laguntzaren xede izango higiezinak erosteko maileguetako finantza-gastuak eta haien amortizazioak, ez eta berreskuratu edo konpentsatu daitezkeen zeharkako zergak ere.
- c) Ez dira langileen gastutzat hartuko erakunde edo zentroetako Zuzendaritza-Batzetako edo Kontseiluetako kide gisa egindako jardueren gastuak, baldin eta kideok diru-laguntzaren xede diren jarduerak egiteko lan-kontratupean ez badaude, eta beharrezko titulu egokia eta behar adinakoa ez badute.
- d) Sexu-diskriminazioagatik zehapen administratibo edo penalik dutenak, ezta otsailaren 18ko 4/2005 Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearekin bat, diru-laguntzak eta laguntzak emateko deialdietan parte hartzeko debekua dutenak ere.
- e) Halaber, dagokion zigorrak ezartzen duen aldian, ezin dute deialdi honetan parte hartu diru-laguntza edo laguntza publikoak jasotzeko aukera galtzarekin administratiboki edo penalki zigortuta dauden pertsona edo erakunde eskatzaileek, ez eta debeku horrekin zigortuta daudenek ere.



## Muskizko Udala Ayuntamiento de Muskiz

### 5. AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK.

1. Eskabideak aurkezteak esan nahi du erabat eta berariaz onartzen direla Dekretuak jasotzen dituen baldintza guztiak.
2. Laguntza hauek eskuratu nahi dituzten erakundeek behar bezala beteta aurkeztu beharko dituzte horietan eskatutako agiriak, atxikitako ereduaren arabera. Gainera, jarraian zehazten diren derrigorrezko agiri hauek ere aurkeztu beharko dituzte:
  - a) Deialdi honi atxikita dagoen eskabide-orria (I. eranskina).
  - b) Diruz lagunduko den proiektuaren deskripzioa (II. eranskina).
  - c) Erakunde eskatzailearen ibilbidea adierazten duen memoria: nori osatzen duten, helburuak, gauzatutako ekintzak.
  - d) Diru-sarreraren eta aurreikusitako gastuen aurrekontua, ondorengo gidoiaren arabera (III. eranskina):
    - Gastuen aurrekontua:
      - Hirugarrenei egindako ordainketak (zerbitzuak, laguntzaileak...)
      - Materialen eskuraketa.
      - Sustapena (kartelak, programak, iragarkiak...)
      - Beste batzuk.
  - e) Diru-laguntza jasoko duen proiektuaren memoria kostuak zehaztuta (IV. eranskina).
  - f) Bankuko kontuaren titularraren berri ematen duen agiria (V. eranskina).
  - g) Ogasuneko eta Gizarte Segurantzako zerga guztiak eguneratuta dituztela adierazten duten urte horretako egiaztagiria, hala badagokio.
  - h) Zinpeko aitorpena, sexu-diskriminazioagatik zehapen administratibo edo penalik ez duela, eta otsailaren 18ko Ley4/2005 Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako Legearekin bat, diru-laguntzak eta laguntzak emateko deialdietan parte hartzeko debekua ez duela adierazten duena.
  - i) Zinpeko aitorpena, zigor- eta administrazio-arloan diru-laguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzarekin zigortuta ez dagoela eta hartarako ezgaitzen dituen legeko debekuaren eraginpean ez dagoela adierazten duena.
  - j) Erakundeak dagokion administrazio erregistroan izena emanda duela egiaztatzen duen agiria.
  - k) Eskaria sinatzen duenak erakundearen izenean jardun dezakeela egiaztatzen duen agiria eta horren NAN zenbakia.
  - l) Identifikazio Fiskaleko Kodearen fotokopia.
  - m) Finantza egoerak 2010eko abenduaren 31n.
  - n) Eskaeraren xede diren ekintzengatik bestelako diru-laguntzen uneko egoeraren adierazpena (emanda, eskatua edo abian).
  - o) Bidezkoa izanez gero, behar den administrazio erregistroan izena emanda duela egiaztatzen duen agiria, diru-laguntza jasotzen duen herrialdeko tokiko eragileen parte-hartzearen konpromisoa edo abalak (tokiko kidearekin egindako hitzarmenaren proiektua).



## Muskizko Udala Ayuntamiento de Muskiz

- p) Bidezkoa izanez gero, proiektuan edo horrekin lotutako sentsibilizazio-ekintzetan erakundeen edo taldeen parte-hartzea egiaztatzen duen agiria.
- q) Bidezkoa izanez gero, bideragritasun teknikoari eta ekonomikoari buruzko azterlanak.
- r) Bidezkoa izanez gero, hondasun higiezinaren edo lurren jabetzaren ziurtagiriak.
- s) Muskizeko Udalak 2010ean emandako diru-laguntzaren egiaztagiria, edo, halakorik ezean, jatorrizko edo konpultsatutako ordainagiriak, diruz lagundutako kopuruan.
- t) 2010. urtean Muskizeko Udalak diruz lagundutako proiektuaren memoria.
- u) Behar bezala legeztatutako Estatutuen fotokopia.
- v) Eraketa-akta.
- w) Zuzendaritza Batzorde berriaren aldaketei buruzko akta, halakorik balego. Bertan, erregistro eta/edo zigilatutako liburuaren zenbakia zehaztuko da, Euskal Autonomia Erkidegoko Elkartearen Errolda Nagusiaren Araudia onesten duen uztailaren 29ko 145/2008 DEKRETUAREN arabera (**21. artikulua**: "Gobernu-organoko kideen aldaketa"). Dekretua 2008ko abuztuaren 27ko (asteazkena) **EHHAn, 162. zenbakian**, argitaratu zen.
- x) Estatutuen aldaketei buruzko akta, halakorik balego. Bertan, erregistro eta/edo zigilatutako liburuaren zenbakia zehaztuko da, Euskal Autonomia Erkidegoko Elkartearen Errolda Nagusiaren Araudia onesten duen uztailaren 29ko 145/2008 Dekretuaren arabera (**20. artikulua**: "Estatutuak aldatzea"). Dekretua 2008ko abuztuaren 27ko (asteazkena) **EHHAn, 162. zenbakian**, argitaratu zen.
- y) 2010eko edo 2011ko azken biltzar orokorraren akta, Euskal Autonomia Erkidegoko Elkartei buruzko ekainaren 22ko 7/2007 Legearen arabera (**16. artikulua**: "Batzar Orokorra"). Legea 2007ko uztailaren 12ko (osteguna) **EHHAn, 134. zenbakian**, argitaratu zen.

Eskatutako agiri guztiak aurkezten ez badira edo oinarri hauetan xedatutako baldintzak betetzen ez badira, 10 eguneko epea emango zaie erakundeei akatsa zuzentzeko edo falta diren agiriak aurkezteko. Era berean, ohartarazi egingo zaie, horrela egin ezean, eskaera baztertu egingo dela.

Jardueraren inguruko dokumentazioaz gain, Udalak diru-laguntza eskatzen duten pertsonen zein erakundeen jardun horiek balioesteko behar adinako informazio osagarria eska diezaietke.



**Muskizko Udala**  
**Ayuntamiento de Muskiz**

**6. EPEAK.**

- a) Deialdia argitaratzen denetik 30 eguneko epea. Dagokien aurrekontua izan beharko dute.

**7. DIRU-LAGUNTZAK BALIOESTEKO ETA EMATEKO IRIZPIDEAK.**

- a) Hasita dauden proiektu eta ekintzak balioetsiko dira, eta garatutako programak gutxienez lau urtean behin berrikusi edo eguneratu beharko dira.

Berrikusketa lana Udalbatza Osoak egingo du, udal teknikariek eta udalerrian garapenerako lankidetzara arloa lantzen duten gizarte taldeekin batera, egokitzen hartzen den sistemaren bidez; eta, gainera, diruz lagundutako jarduerara "in situ" egiaztatzen ahal izango du. Honako hauek osatuko dute berrikusketa batzordea: alkatea, Gizarte Ekintza Batzordeko mahaiburua, talde politiko bakoitzeko kide bat eta batzordeak erabakitzen dituen udalerriko gizarte taldeen beste kide batzuk.

b) Lehentasuna emango zaio premiazko giza laguntzari, garapenaren aurrean. Alkatetzak ebatzi eta erabakiko du, alde aurretik Informazio Batzordeari kontsulta eginda, eta deialdiko aurrekontu osoaren %10 izango da.

- c) Erakunde edo pertsona eskatzaileek gehienez ere 100 puntu lortu ahal izango dituzte, honako baremo hauek kontuan hartuta:

- 1) Komunitateen autonomia eta garapena honako hau aintzat hartuta: proiektua abiarazteak duen eragina lurralde eremuari, xede diren herritarrei (kopurua eta dibertsitatea), jorrotutako helburuen kopuruari eta balibideen aniztasunari dagokionez  
..... **Gehienez 25 puntu.**
- 2) Urte anitzeko jardueren programak, ekitaldi bakoitzerako jarraipenaren aldeko irizpena dutela: ..... **Gehienez 25 puntu.**
- 3) Genero-berdintasuna sustatzen duten ekintzak Aintzat hartuko da proiektuaren fase guztietan emakumeen partaidetza sustatzen duen metodologia erabiltzen den eta metodologia horrek emakumeen baldintza praktikoa eta/edo estrategikoa hobetzen laguntzen duen ala ez: ..... **Gehienez 10 puntu.**
- 4) Gizarte-bazterketaren aurkako ekintzak. Aintzat hartuko da bereziki ahulak diren edo baztertuta dauden taldeen baldintzak hobetzen diren ala ez ..... **Gehienez 10 puntu.**
- 5) Erakundeak egoitza soziala Muskiz udalerrian izatea: ..... **15 puntu**
- 6) Muskizko herritarrak sentsibilizatzeko eta kontzientziarazteko ekintzak:  
..... **Gehienez 15 puntu.**

25 puntu baino gutxiago lortzen duten eskaerei ezetza emango zaie. Diru-laguntzen deialdi honetarako ezarri den aurrekontua onartutako eskaera guztien artean banatuko da, salbuespen hau aintzat hartuta:

"Diru-laguntzaren zenbatekoa ezin izango da aurkeztutako gastuen %75 baino handiagoa izan".

"Diru-laguntza batek ezingo du Gizarte Ekintza Sailak deialdi honetarako bideratutako diruaren % 20a gainditu."

[Kasu bietan behar Gizarte Ekintza Sailak balioetsiko balu eta behar bezala justifikatuta salbuespenak eman daitezke.]

Diru-laguntza elkarte bakoitzaren ekintza guztien batuketara burututa izango da.



**Muskizko Udala**  
**Ayuntamiento de Muskiz**

**8. EBAZPENAK JAKINARAZTEA.**

Behin ebazpenak eginda, dagokion Sailak idatziz jakinaraziko die eskatzaile guztiei, eta, ondoren, emandako diru-laguntza sartuko die bankuko kontuan.

**9. DIRU-LAGUNTZEN JUSTIFIKAZIOA ETA ITZULKETAK.**

Jarduera bereziak, gauzatzen direnetik bi hilabeteko epean justifikatu beharko dira. Urteko programak justifikatzeko, berriz, diruz lagundu den programaren hurrengo urteko urtarrilaren 31 izango da azken eguna. Aurretik emandako diru-laguntzak zegokien epeetan justifikatu ez dituzten erakunde edo pertsoneri ez zaie, inola ere, diru-laguntzarik emango.

Diru-laguntzak justifikatzeko honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

- 1.- Gastuen laburpen-zerrenda.
- 2.- Aipatutako gastuen **fakturak**.
- 3.- Diruz lagundutako jarduera edo programen deskripzio- eta balioespen-txostena.
- 4.- Diruz lagundutako jardueren publizitatean Muskizeko Udalaren laguntza jakinarazi dela egiaztatzen duen agiria.

Muskizeko Udalak behar bezala justifikatu ez den diru-kopurua erreklamatu ahal izango die diru-laguntza jaso duten erakundeei edo pertsoneri.

Muskiz, 2011ko Urriak 10

Sinatuta.: BORJA LIAÑO ABARRATEGI  
ALKATE UDALBURUA